

gertu

kultura
inklusionarako
atea



JARDUEREN
MEMORIA

2025

Gertu kultura

gertukultura.org

gipuzkoa@gertukultura.org

Memoria honen itxiera-data: 2025eko urtarrilaren 26a

Babesleak:



Laguntzaileak:



JARDUEREN MEMORIA 2025

JEDUKIAK

1. AURKEZPENA / 1. orria

- Zer da Gertu Kultura?
- Xedea eta balioak
- Ezaugarri nagusiak
- Nori dago zuzenduta?
- Programaren hedapena eta kudeaketa
- Gertu Kultura taldea

2. GERTU KULTURA SAREA / 6. orria

- Programatzaile kulturalak
- Gizarte-arloko erakundeak, zentroak eta zerbitzuak

3. JARDUERA 2025 / 16. orria

- Esperientzia kulturalak
- Garraio-zerbitzua
- Formakuntzak eta topaketak
- Gertu Kultura urteko jardunaldia
- Programa espezifikoak eta partaidetzazkoak

4. KOLABORAZIOAK / 34. orria

5. LAN-SAREAK / 35. orria

6. FOROETAKO PARTE-HARTZEA / 35. orria

7. KOMUNIKAZIOA ETA PRENTSA / 36. orria

- Edukiak
- Buletinak
- Sare Sozialak
- Hedabideak
- Webguneko bisitak

1. AURKEZPENA

ZER DA GERTU KULTURA?

Gertu Kultura programa soziokultural bat da, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen programazio kulturala irisgarri egiten diena gizarte-erakundearen eskutik.

Gertu Kultura egunero ari da eboluzionatzen eta eraldatzen, pertsonak, gizartearen eta kulturaren arloko erakundeak, eta eragile publiko eta pribatuak biltzen dituen sare organiko baten bidez. Denok egiten dugu aurrera helburu komun baterantz, hots: kulturaren bidez gizarte bidezkoagoak, jasangarriagoak eta berdinzaleagoak eraikitzea.

www.gertukultura.org plataformaren bidez, Gipuzkoako antzoki, auditorio, museo, espazio berezi eta jaialdiekin konektatzen ditugu gizarte-erakundeak.

2025ean, lan-ildoek aniztasunak ikusaraztea izan dute ardatz **#Filtrorik gabe: Aniztasuna ospatzen** kanpainaren bidez, eraldaketa sozialerako tresna gisa irisgarritasuna eta bitartekaritza indartuta. Lanean jarraitu da **nahi ez den bakardadeari aurre egiteko** kulturak betetzen duen zereginaren inguruan.

Gertu Kultura sare zabalago baten parte da. Sare hori duela 18 urte hasi zen Katalunian, Apropa Cultura izenarekin. Erreferentziazko jardunbide egokien programa bat da, ezagutzak modu deszentralizatuan ematen eta transferitzen dituen. Ezagutza hori eta gure esperientzia eta ibilbidea batuta, Gertu Kulturak 2023ko azaroan hasi zuen bere ibilbidea Gipuzkoan, gure lurraldearen berezitasunetatik, beharretatik eta testuingurutik abiatuta. 2024an, etengabe eraldatzen eta hazten ari den sare kultural bat eratu da, kultura gizartearen eraldaketaren eragile gisa kokatzen duena.

XEDEA ETA BALIOAK:

Kulturarako sarbidea eskubide bat da, pertsona duintzen du eta hura erabat gizarteratzea normalizatzen du. Gertu Kultura sortu da kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bizitza kulturaren bidez hobetzeko borondatearekin.

Asmoa

- Gizarte inklusiboagoa eta bidezkoagoa nahi dugu, herritarren onurarako.
- Hori lortzeko erabiltzen dugu kultura, gizartearen eraldatzeko eta pertsonen bizitza hobetzeko duen ahalmenagatik.

Sinesmenak

- Kultura eskubide unibertsala da, eta beharrezkoa da kulturarako salbuespenik gabeko sarbidea bermatzea.

- Kultura inklusiboa eta partaidetzazkoa eraldaketa sozial eta indibidualaren eragilea da.
- Aniztasunak denoi laguntzen digu hazten.

Balioak

- Sormena eta berrikuntza metodologian.
- Ekitatea eta justizia soziala politiketan.
- Maitasuna eta konpromisoa harremanetan.
- Bokazio eraldatzailea kulturatik abiatuta.

Gertu Kultura Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin



EZAUGARRI NAGUSIAK

Gertu Kulturen, pertsona guztien irisgarritasun eta parte-hartze kulturalerako eskubidea bermatzeko lan egiten dugu. Horretarako, dauden oztopoak detektatzen ditugu eta oztopoak ezabatzen laguntzen duten lan-ildoak, ekintzak eta programak inplementatzen ditugu. Horretarako, programan parte hartzen duten programatzaile kulturelek hainbat konpromiso hartzen dituzte beren jarduerak irisgarriago egiteko.

Eta, nola egiten dugu

➤ Programazio kulturaletik:

- o Antzoki, jaialdi eta auditorioetako ohiko programazioko ikuskizunak.
- o Museoetako eta espazio berezietako bilduma eta erakusketen inguruko bisitak eta lantegiak. Jarduera horiek talde bakoitzaren beharretara egokitzen dira.

➤ Programazio osoaren eskaintzak **0 eta 3 € arteko prezioa du pertsonako.**

➤ **Irteerak arrakastatsuak izan daitezen zaintzen dugu.** Pertsona guztien beharrak kontuan hartzen ditugu, eta gizartearen eta kulturaren arloko erakundeei aholkularitza eta laguntza ematen diegu.

➤ **Tokian-tokian** lan egiten dugu, **kulturaren eta gizartearen sektoreen artean zubi egonkorrak** ezarrita. Urtean zehar programazio kulturalaren aurkezpenak antolatzen ditugu eskualde bakoitzeko zentro sozialetan.

- **Formakuntza artistikoak (Artez Hezi)** antolatzen ditugu gizarte- eta hezkuntza-ekintzako profesionalentzat.
- **Irisgarritasunari eta inklusioari buruzko formakuntzak (Errazbide)** diseinatu ditugu, ekipamendu kulturaletako langileei zuzenduta, kolektibo sozialei ahalik eta zerbitzurik onena eskaini ahal izateko.
- **Proiektu kultural eta artistiko espezifikoak** diseinatu eta antolatzen ditugu. Horietan gizarte-erakundeek eta ekipamendu kulturalak parte hartzen dute, kultura pertsona guztiei helarazteko, baita beren inguruabarrengatik zentro sozialetatik atera ezin direnei ere.
- Eskatzen duten erakundeei **garraioa** jartzen diegu, adinekoen egoitzetan artatutako pertsonen lehentasuna emanda.
- Eragile sozial eta kulturalen, adin desberdinetako pertsonen, ikastetxeen eta zentro sozialen erabiltzaileen arteko **topaketa- eta elkarrizketa-guneak (Elkarguneak)** sortzen ditugu, behar eta erronka kolektiboak erantzuteko.
- **Irisgarritasun eta bitartekaritza kulturalari buruzko aholkularitza** kulturaren arloko profesionalentzat eta ekipamendu kulturalentzat.
- **Gomendioak** eta aholkularitza gizarte-erakundeei, kultura eraldaketa sozialeko tresna normalizatu gisa koka dezaten beren eguneroko jardueraren esparruan.
- **Ebaluazioa.** Kulturaren eragin soziala baloratzeko metodologia eta tresnak.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Gizarte-arloko erakundeei eta zentroeiei, honako hauekin lanean dihardutenei:

Desgaitasun intelektualak duten pertsonak, osasun mentaleko arazoak dituztenak, garuneko paralisia eta/edo antzeko ezintasunak dituztenak, desgaitasun fisikoak izanik gizarte-bazterketako egoeran daudenak, adineko pertsonak (egoitzak, eguneko zentroak), askatasunaz gabetuta daudenak, pertsona migratuak eta errefuxiatuak (harrerako eta gizarteratzeko programak), haurrak eta nerabeak (CRAE zentroak eta zentro irekiak), adikzioak dituztenak, etxerik gabeak, emakumeak (genero-indarkeria eta bazterketa-arriskua), autismoaren espektroko nahasmendua dutenak, kalteberatasun-egoeran dauden LGTBI kolektibokoak.

Gainera, zerbitzua ematen diegu zentro okupazional bereziei, gaixotasun kronikoetako elkarteei, syndrome edo gaixotasunekin lotutako familien elkarteei, eta adinekoei zerbitzua ematen dieten etxebizitzetara.

PROGRAMAREN HEDAPENA ETA KUDEAKETA:

- Urtean zehar **udalen eta ekipamendu kultural berrien programazio kulturala** sarean sartzeari dugu helburu. Sareari atxikitze prozesuan, harreman iraunkorrak ezartzen ditugu zuzendaritzarekin, gerentziarekin, zinegotzigoarekin edo alkatetzarekin. Ekipamendu kulturaletako langileei zuzendutako formakuntza espezifikoak egiten ditugu, ahalik eta zerbitzu onena emateko. Etengabe **laguntzen** dugu espazioetako bakoitzean programa sustatu eta garatzeko.
- 2024ko urtariletik **Gipuzkoako 31 udalerritako 204 zentro sozialen** datu-basea kudeatzen dugu, eta lurraldeko udalerri guztietara iristeko lanean jarraitzen dugu. Federazio, elkarte, entitate eta aldundiekin lan egiten dugu Gertu Kultura ezagutarazteko.
- **Udaletako kultura-arloarekin eta gizarte-ongizateko arloarekin** lan egiten dugu gizarte-zerbitzuak eta zentroak beren ingurune hurbileneko eskaintza kulturalarekin lotzeko, **dauden sinergiak sustatzeko eta lankidetzaren modu berriak irekitzeko.**
- **Urteko komunikazio-kanpaina** bat diseinatu eta ekoizten dugu ekipamendu kulturekin eta gizarte-erakundeekin lankidetzan, programa ezagutarazteko eta kulturarako sarbidea eskubide unibertsal gisa aldarrikatzeko.
- **www.gertukultura.org webgunea kudeatzen dugu.** Horren bidez, sarreren salmenta dinamizatzen dugu eta ikuskizun eta museoetarako sarreren erreserba guztiak bideratzen ditugu. Plataforma garatzen eta hobetzen duen enpresa informatikoarekin eta edukien talde administratzailearekin batera egindako lanaren emaitza da webgunea, eta helburu du erabiltzaileen beharretara egokitzea, esparru kulturekoak nahiz sozialekoak izan. Hori dela eta, Gertu Kulturak urtean zehar inplementazio informatiko berriak proposatzen ditu.
- Ekipamendu kulturek **beren ohiko programazioaren % 2 gutxienez** kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak **eskain diezaieten** zaintzen dugu. **Ekipamendu kultural guztiei euskarri-zerbitzua** eskaintzen diegu kudeaketaren arloan, baita informatikari eta edukiei dagokienez ere.

- **Ekipamendu kulturalak aholkatzen ditugu beren jarduerak kolektibo bakoitzaren beharretara egokitzeke.**

GERTU KULTURA TALDEA:

Kudeaketa eta bitartekaritza soziokulturalean ibilbide luzea egin duen profesional talde bat gara. Kulturaren bidez gizarteratzearekin eta irisgarritasun unibertsalarekin lotutako proiektuen diseinuan eta garapenean espezializatuak.

Prozesuak eta loturak zaintzetik abiatuta lan egiten dugu, egiten dugun guztiaren erdigunean pertsonak kokatuta.

Zuzendaritza:

Marta Font

Bitartekaritza eta kudeaketa:

Amaia Salaverria

Komunikazioa:

Ane Rotaèche

Gertu Kultura taldea ekipamendu kulturaletan:

Gertu Kultura ekipamendu kulturalen eta gizarte-erakundeetako profesionalen arteko elkarlanaren emaitza da.

Ekipamendu edo programatzaile kultural bakoitzak arduradun bat du, **Gertu**

Kulturako koordinatzailea, Gertu Kultura taldeen programazioa, sarrerak, ordainketak eta arreta kudeatzeaz arduratzen dena.

Administrazio publikoen babesarekin:

Gertu Kulturaren garapenean hasieratik inplikaturik, proiektuari euskarria eta hedapena ematen diote:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentua.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua.

Honako honen lankidetzarekin: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eragile eta babesle pribatuen babesarekin:

Programak La Caixa Fundazioaren babesa du.

Orona eta Irizar babesle eta Danobat, Bitez eta Erbi bus laguntzaile ditu.

2. GERTU KULTURA SAREA

2024ko urtariletik 2025eko abenduaren 31ra arte, Gertu Kultura sareari honako hauek atxiki zaizkio:

PROGRAMATZAILE KULTURALAK:

Guztira **36 programatzaile kultural**.

1. Arma Plaza Fundazioa
2. Laboratorium Museoa (sustatzailea: Bergarako Udala)
3. Chillida Leku
4. Cristóbal Balenciaga Museoa
5. Dantzagunea
6. D'elikatuz Interpretazio Zentroa (sustatzailea: Ordiziako Udala)
7. D'Museoa
8. EGO Fundazioa
9. Euskadiko Orkestra
10. Euskal Itsas Museoa (sustatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia)
11. Eragiyok Abesbatza
12. Errabal Elkartea
13. Gaztelupeko Hotsak
14. Gero Axular kultur taldea
15. Igartubeiti Baserri Museoa (sustatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia)
16. Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa (sustatzailea: Idiazabalgo Udala)
17. Kursaal Eszena
18. Lenbur Fundazioa:
 - 50. hamarkadako eskola eta kapera
19. Makina Erreminta Museoa
20. Museum Cemento Rezola (sustatzailea: Heidelberg Materials)
21. Musikene. Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia
22. Donostiako Orfeoia
23. Arditurri, Oiartzun (sustatzailea: Gipuzkoako Parketxeak)
24. Iturraran, Aia (sustatzailea: Gipuzkoako Parketxeak)
25. Barandiaran museoa, Ataun (sustatzailea: Gipuzkoako Parketxeak)
26. Arantzazu, Oñati (sustatzailea: Gipuzkoako Parketxeak)
27. Sade Zinemak:
 - Antiguo Berri Zinemak
 - Príncipe Zinemak
 - Trueba Zinemak
28. San Telmo Museoa
29. Soraluzeko Kultur Etxea (sustatzailea: Soraluzeko Udala)
30. Ardixarra Etxea (sustatzailea: Segurako Udala)
31. Topic Museoa
32. Zerain Paisaia Kulturala (sustatzailea: Zeraingo Udala):
 - Aizpeako Meatze Gunea

- Larraondoko Zerrategi Hidraulikoa
- Zeraingo Museo Etnografikoa
- 33. Zumalakarregi Museoa (sustatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia)
- 34. Bide Bizia (sustatzailea: Zumarragako Udala)
- 35. Soinuenea Fundazioa
 - Soinuenea Museoa
- 36. José Miguel Barandiaran Fundazioa
 - Sara Etxea

GERTU KULTURA SARE KULTURALA



GIZARTE-ARLOKO ERAKUNDEAK, ZENTROAK ETA ZERBITZUAK

Guztira **gizarte-arloko 204 erakunde, zentro, programa eta zerbitzu.**

ADEMGI Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte (1)

AFAVI (1)

AGIFES (17)

- Ibiltzen Benta Berri
- Ikuskapen ertaineko tutoretzapeko etxebizitza - Easo
- Buenavistako Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa
- Ikuskapen txikiko tutoretzapeko etxebizitza - Ipar
- Ikuskapen ertaineko tutoretzapeko etxebizitza - Salegi
- Etxebizitza - Astigarraga
- Etxebizitza - Katea - Irun
- Etxebizitza - Oiartzun
- Karabeleko
- Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa - Eibar
- Etxebizitza - Egino - Irun
- Babespeko etxebizitzaren programa - Donostia
- Ikuskapen txikiko tutoretzapeko etxebizitza - Zumarraga
- Ikuskapen txikiko tutoretzapeko etxebizitza - Elgoibar
- Ikuskapen handiko tutoretzapeko etxebizitza - Beasain
- Babes-etxebizitza
- Osasun mentaleko Elkargunea

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA (1)

ARRATS (5)

- Irteerak eguneko zentroa
- Hestia eguneko zentroa
- Larrialdietarako etxebizitzak - Donostia (Donostiako Udala)
- Pisuak (Foru Aldundia)
- Txiki Txoko (Loreak taldea)

ARRETA (1)

- Santa Barbara eguneko zentroa

ATECE GIPUZKOA (1)

ATZEGI (4)

- Atzegi
- Atzegi - Bizitza independenteko programa
- Atzegi - Etxebizitza-zerbitzua
- Atzegi - Etxebizitza - Artzain Onaren plaza

APSG Gipuzkoako Gorren Elkarte (1)

ASPACE (5)

- Aspace - Ibaiondo
- Aspace - Beasain
- Aspace - Urretxu
- Aspace - Arrupenea
- Aspace - gela egonkorra (Elaienea)

BERGARAKO SENEGALEKO LAGUNEN ELKARTEA NDANK NDAK (1)

BIDEZ BIDE GIZARTE SUSTAPENERAKO KULTUR ARTEKO ELKARTEA (1)
BIHARKO - KABIA (19)

- San Lazaro egoitza
- Txara 1
- Txara 2
- Bista Eder eguneko zentroa
- Aldakonea
- Berio zentro gerontologikoa
- Kabia Bergara (Mizpirualde)
- Alai Etxe
- Kabia Ordizia (San Martin)
- Getariko Egunekeo Zentroa
- Ama Xantalen egoitza
- Errenteriako eguneko zentroa
- San Andres egoitza - Kabia - Eibar
- Beasaingo eguneko zentroa
- Arangoiti egoitza
- Done Joan Bataiatzailea egoitza
- San Jose egoitza
- Iturbide egoitza
- Santa Maria Magdalena adinekoen egoitza

CARITAS (11)

- Caritas - Mendebalde
- Lurralde programa
- Miriam proiektua
- Bidelagun
- Sorabilla proiektua
- Caritas - Ekialde 2
- Caritas - Goierri
- Trintxe-Emeki egoitza-zentroa
- Lamourous zentro okupazionala
- Zubia
- Aterpe

CASER (1)

- Caser - Betharram bizitegi-etxea

CLINICA SAN IGNACIO- HERMANO GARATE (1)

GURUTZE GORRIA (14)

- Emantzipazio-programa: gazteentzako babespeko etxebizitzak
- Tolosako errehabilitazio psikosozialeko zentroa
- Donostiako Batzarra
- Harrera programa
- Algara gizarteratzeko eguneko zentroa
- Pertsona zigortuak gizarteratzeko etxebizitza komunitarioak
- Nahasmendu mental larria duten pertsonentzako errehabilitazio-unitatea (NMLEU)
- Asilo-eskatzaileak eta/edo errefuxiatuak hartzeko programa
- Debagoieneko Gurutze Gorria
- Crono programa

- Gizarteratzeko babespeko etxebizitzaren programa
- Gipuzkoako Gurutze Gorria - Adinekoen egoitza
- Informazio- eta orientazio-zerbitzua
- Gurutze Gorria - Gazteentzako babesa

EMAUS (9)

- Bidasoako eguneko zentroa
- Zubia gizarteratze-zentroa
- Izal
- Portueneko gizarteratze-zentroa
- Itsas Etxea
- Zarautz Oinarrian
- Urdaburu etxebizitza
- Gizarteratzeko babespeko etxebizitzaren programa
- Inklusiorako etxebizitzak

ERROAK-SARTU ELKARTEA (1)

EULEN ZERBITZU SOZIOSANITARIOAK (1)

- Arin zentroa

EUSKO JAURLARITZA-ZIG (7)

- Ipintza BHI
- Oñati Institutua
- Zig Eguzkitza
- Zig Eibar BHI
- Arrasate BHI Zig gela
- Gamon BHI Zig gela
- Koldo Mitxelena BHI (gela egonkorra)

GOYENECHE FUNDAZIOA (17)

- Garagune - Amara eguneko zentroa
- Garagune - Usandizaga eguneko zentroa
- Garagune - Zarautz
- Garagune - Berio
- Garagune - Errenteria
- Garagune - Ordizia
- Garagune - Legazpi
- Auzoan
- Garagune - Arrasate
- Garagune - Ibarra
- Garagune - Easo
- Garagune - Pasaia
- Garagune - Bergara
- Garagune - Eibar
- Garagune - Hernani
- Garagune - Irun
- Garagune - Azpeitia

IZAN FUNDAZIOA (4)

- Izan Fundazioa - Hernani - Alkohola programa
- Gizakia Helburu - Birgizarteratze intentsiboa
- Gizakia Helburu
- Eraiki

ZORROAGA FUNDAZIOA (3)

- Zorroaga Fundazioa
- Tutoretzapeko apartamentuak - Arrasate 51
- Eguneko zentroa - Arrasate 51

GAUTENA (5)

- Gautena aisia
- Artolamendi eguneko jarduera-zentroa
- Gizartean
- Berio Gautena unitatea
- Andoaingo zentroa

GIZAIDE FUNDAZIOA (2)

- Eguneko zentroa
- Ikuskaritza ertaineko etxebizitza

GSR COOP (6)

- GRS Nuestra Señora de la Paz
- GSR Egiluze (Irun): Desgaitasun Intelektualeko Unitatea
- GRS Egiluze (Irun): Nahasmendu Mental Larriko Unitatea
- GRS Egiluze (Irun): Kalte Zerebraleko eguneko zentroa
- Victoria Enea NMLEU
- GRS Santikutz adinekoen egoitza

GUREAK (2)

- Bagara
- Errenteriako Gerontologikoa SL

SAN JOSÉ DE LA MONTAÑA EGOITZA-ETXEA (1)

OSPITALARIOAK FUNDAZIOA EUSKADI (10)

- Desgaitasun intelektualaren arloa: errehabilitazio eta dinamizazio sozialeko zerbitzua
- Adinekoen arloa: errehabilitazio eta dinamizazio sozialeko zerbitzua
- Osasun mentaleko arloa: errehabilitazio eta dinamizazio sozialeko zerbitzua
- Errehabilitazio psikosozialeko zentroa (EPZ) - Arrasate
- Errehabilitazio psikosozialeko zentroa - Maldatxo
- EPZ - Beasain
- Errehabilitazio psikosozialeko zentroa - Antzaran
- Eguneko ospitalea - Musakola Zentroa
- Kalte zerebraleko eguneko zentroa - Arrasate
- Kalte zerebraleko eguneko zentroa - Donostia

OSAKIDETZA (1)

- Zumarragako eguneko ospitalea

IRSE-EBI (3)

- Etxebizitza - Matsaria 1
- Etxebizitza - Matsaria 2
- Guraso Programa

BALLESOL ZENTROARTEKOA (1)

- Ballesol Easo

JATORKIN AL NAHDA (2)

- Tolosa elkarte
- Donostia elkarte

KOLOREAREKIN ELKARTE ARTISTIKOA (1)

- Dantza Inklusiboa elkarteak
- MATIA FUNDAZIOA (14)
- Matiazaleak
 - Bermingham egoitza-zentroa
 - Argixao zentro soziosanitarioa
 - Lamourous zentro gerontologikoa
 - Elizaran
 - Otezuri
 - Etxebizitzak - Lugaritz
 - Petra Lekuona
 - Iza zentroa
 - Matia Julian Rezola
 - Fraisoro eguneko zentroa
 - Egurtzegi egoitza
 - San Martin
 - Egurtzegi eguneko zentroa

ONDOAN TOPAGUNEA (1)

SAN JOAN JAINKOAREN ORDENA OSTALARIA (1)

- San Joan Jainkoarena Arrasate

ORTZADAR ELKARTEA (3)

- Ortzadar
- Ortzadar - Bizitza Independenteko Programa
- Ortzadar - Etxebizitza Zerbitzua

PEÑASCAL S. KOOP (5)

- Peñascal S. Koop. Gipuzkoa
- SEFAC Goierri
- Zelaeta eguneko zentroa
- Abegi arreta-zerbitzua
- Gizarteratzeko babespeko etxebizitzak

PLUS 55 (1)

AITA ETXE EGOITZA (1)

MESEDEETAKO ANDRE MARIAREN EGOITZA (2)

- Mesedeetako Andre Maria - Egoitza
- Mesedeetako Andre Maria - Eguneko zentroa

SAN GABRIEL EGOITZA (1)

VILLAHERMINIA EGOITZA (1)

SANITAS (2)

- Sanitas - Adinekoen egoitza-zentroa - Miramon
- Sanitas - Adinekoen egoitza-zentroa - Txindoki

SANTA ANA FUNDAZIOA (1)

SAREA FUNDAZIOA (1)

- Bidean Heziketa Zentro Okupazionala

ULIAZPI (5)

- Donostia zentroa
- Egogain eguneko zentroa
- Zubietza zentroa

- Fraisoro zentroa
- Zubillaga doktorea zentroa



ZABALDUZ KOOP. ELKARTEA (3)

- Gazteon sarelan
- Babespeko etxebizitzaren programa
- Trapezistak programa

ZABALTZEN SARTU KOOP. ELKARTEA (2)

- Inklusiorako eguneko zentroa - Barrenetxe
- Gizarteratzeko eguneko zentroa - Arregitorre

GERTU KULTURA SARE SOZIALA



ERREGISTRATUTAKO GIZARTE-ZERBITZUEN JATORRIA:

Andoain	4	Hernani	10
Aduna	0	Hondarribia	2
Alegia	0	Ibarra	1
Anoeta	0	Ikaztegieta	0
Antzuola	0	Irun	11
Aretxabaleta	0	Irura	0
Arrasate	13	Itsasondo	0
Astigarraga	2	Lasarte	1
Ataun	0	Lazkao	1
Azkoitia	2	Legazpi	2
Azpeitia	5	Legorreta	0
Beasain	9	Leintz Gatzaga	0
Bergara	7	Lezo	0
		Mendaro	0
		Mutriku	0
		Oiartzun	2
		Oñati	1
Deba	0	Ordizia	2
		Orio	0
Donostia	84	Ormaiztegi	0
Eibar	7	Pasaia	3
		Soraluze	2
		Tolosa	5
Elgeta	0	Urretxu	3
		Usurbil	2
Elgoibar	3	Villabona	0
		Zaldibia	0
Errenteria	8	Zarauz	5
Eskoriatza	0	Zizurkil	1
Ezkio-Itsaso	0	Zumaia	1
Getaria	1	Zumarraga	3

3. JARDUERAK 2025

Esperientzia kulturalak

2024ko urtariletik 2025eko abendura arte, esperientzia kultural hauek burutu dira programaren bidez.

Datu orokorrak:

50 gizarte-erakundetako 204 zerbitzu/zentro erregistratu dira.

36 programatzaile atxiki zaizkio proiektuari.

Programaren hasieratik 534 erreserba egin dira programatutako jardueretarako. Horietan, gizarte-bazterketako arriskuan dauden **6.206** pertsonak hartu dute parte guztira. Zehazki, **2025. urtean zehar 306 erreserba** egin dira eta **3.486 pertsonak** parte hartu dute.

2025eko erreserben banaketa lurraldearen arabera:

Gertu Kulturen eskainitako jardueretan parte hartu duten 3.486 pertsonetatik 1.877 pertsonak erabaki dute jarduera horiek Donostialdean egitea. Gainerako 1.609 pertsonak, aldiz, Gipuzkoako gainerako eskualdeetan egin dituzte jarduerak.

2025eko erreserben banaketa jarduera-motaren arabera:

- Museoak (bisita gidatuak, lantegiak, etab.): % 80,70
- Arte eszenikoak (kontzertuak, entseguak, etab.): % 10,50
- Zinema (filmen emanaldiak): % 0,14
- Beste ondare-leku interesgarri batzuk (bisita gidatua, lantegiak, etab.): % 8,66

2025eko erreserben banaketa hilabetearen arabera:

- Urtarrila: 13 jarduera, 143 pertsona
- Otsaila: 18 jarduera, 185 pertsona
- Martxoa: 32 jarduera, 330 pertsona
- Apirila: 34 jarduera, 364 pertsona
- Maiatza: 40 jarduera, 426 pertsona
- Ekaina: 22 jarduera, 305 pertsona
- Uztaila: 27 jarduera, 286 pertsona
- Abuztua: 9 jarduera, 85 pertsona
- Iraila: 18 jarduera, 240 pertsona
- Urria: 41 jarduera, 498 pertsona
- Azaroa: 32 jarduera, 320 pertsona
- Abendua: 20 jarduera, 304 pertsona

2025eko erreserben banaketa kolektibo-motaren arabera:

- Adikzioak dituzten pertsonak: % 2,8
- Alzheimerra eta/edo beste dementzia batzuk dituzten pertsonak: % 2
- Dibertsitate funtzional fisikoa duten pertsonak: % 5,4
- Dibertsitate funtzional intelektualak duten pertsonak: % 27,2
- Gizarte-bazterketako arriskuan edo kalteberatasun-egoeran dauden emakumeak: % 3,7
- Gizarte-bazterketako arriskuan edo kalteberatasun-egoeran dauden adineko pertsonak: % 19,6
- Gizarte-bazterketa arriskuan dauden haurrak eta gazteak: % 1,6
- Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak: % 0,6
- Pertsona migratzaileak eta/edo errefuxiatuak: % 2,7
- Askatasunaz gabetutako pertsonak: % 0,7
- Pobrezia-egoeran dauden pertsonak: % 6,9
- Osasun mentaleko kolektiboko pertsonak: % 22,1
- Etxerik gabeko pertsonak: % 1,9
- Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonak: % 3

Garraio-zerbitzuak

Erakundeek eta gizarte-zerbitzuek kulturara iristeko duten oztopoetako bat Gipuzkoako udalerrien arteko mugikortasunari lotutakoak da.

Horretarako, Gertu Kulturak bisita kultural irisgarriagoak egiten laguntzen du, gizarte-erakundeei joan-etorrietan lagunduta.

Urtean zehar, Gertu Kulturak programarekin bat egiten duten garraio-enpresekin kolaborazioak bilatzen ditu, eragile laguntzaile gisa. Babes horri esker, garraiorako prezio sozialak lortzen dira.

Abenduaren 31ra arte egindako garraio-zerbitzuak:

Guztira, 2025ean **21 garraio-zerbitzu** egin dira, eta **355 pertsonak** aukera izan dute espazio kultural eta/edo jarduera irisgarriagoak helmenean izateko.

Formakuntzak eta topaketak

Urtean zehar, hiru formakuntza-ildo osagarri garatu genituen, erakundeen barruan kulturak eta arteak eraldaketa sozialerako dituzten aukerak indartzen, kulturara sartzeko oztopoak detektatzen eta aukera berriak sortzen laguntzeko:

Errazbide: Irisgarritasunaren eta aniztasunaren inguruko formakuntza, programan parte hartzen duten gizarte-erakundeei lankidetzan, kulturaren sektoreko profesionalei zuzenduta.

Artez Hezi: Gizarte-arloko hezitzaile/profesionalei eta erabiltzaileei eta kultura-arloko profesionalen zuzendutako lantegi artistikoak.

Elkarguneak: Gizartearen eta kulturaren sektoreko eragileen arteko partaidetzazko lantegia.

- 2025eko apirila eta maiatza: **Errazbide formakuntzak**.

Errazbide programaren esparruan 2 formakuntza egin dira 2025ean.

Lehen formakuntza apirilean egin zen, Aspace Gipuzkoarekin lankidetzan, Donostiako Goienetxe zentroan. Bitartekari kulturei zuzenduta zegoen, garuneko paralisia duten pertsonen kolektiboa, beharrak eta gomendioak hobeto ezagutzeko, eta espazio kulturaletan haienganako arreta eta komunikazioa hobetzeko. 23 pertsonak hartu zuten parte.

Baliabide pedagogikoak:

https://www.apropacultura.org/sites/default/files/25_formacion_errazbide_aspace_2_04_resumen_contenido_cas.pdf



Errazbide formakuntza Aspace Gipuzkoarekin lankidetzan 2025.04.02

Bigarren formakuntza “Irisgarritasuna eta aniztasunarekiko arreta. Sarrera bat” izenburua zuena, sareko bitartekari kulturei ere zuzendutakoa, online formatuan egin zen 2025eko maiatzaren 30ean. 43 pertsona konektatu ziren.



- 2025eko ekaina: **Elkarguneak.**

Lehen lantegi honen helburua izan zen topagune bat sortzea kulturaren sektoreko pertsonen eta gizarte-erakundeen artean hitz egiteko, elkar ezagutzeko, elkarri entzuteko eta kulturak gizartea eraldatzeko dituen aukerak partekatzeko, aniztasun soziala ezagutu eta aitortzetik abiatuta.

Zehazki, kulturarako sarbidean izaten diren oztopo “ikusezinenak” izan ziren topaketaren ardatz. Kolektibo jakin batzuei lotuta indarrean dauden estereotipo, aurreiritzi eta estigma batzuk berrikusi eta aztertu ziren, dakartzaten desberdintasunez jabetzeko eta, horrela, kulturaren aukeretatik abiatuta horiek aldatzeko lan egiteko. Horretarako, hainbat dinamika egin ziren.

Topaketan kulturaren arloko profesionalak, gizartearen arloko profesionalak eta hainbat gizarte-erakundetako erabiltzaileek parte hartu zuten. Guztira, 28 pertsonak parte hartu zuten.

Kulturaren sektoreko parte-hartzaileak: Laboratorium Museoa, Igartubeiti Baserri Museoa, D'elikatuz Interpretazio Zentroa, Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa, Chillida Leku, Euskal Itsas Museoa, Zumalakarregi Museoa, San Telmo Museoa, Taun Tuan Teatroa, Bergarako Udala.

Gizartearen sektoreko parte-hartzaileak: Plus 55, Aita Menni, Kabia (Mizpirualde), Uliazpi, Matia (Argixao), Bergarako Nagusien Kontseilua, Cáritas.



Elkarguneak 2# topaketa Laboratorium Museoan 2025.06.27



Elkarguneak 2# topaketa Laboratorium Museoan 2025.06.27

- 2025eko urria eta abendua: **Artez Hezi tailerrak.**

2025ean hainbat lantegi egin dira Artez Hezi programaren esparruan.

Oihana Varela sortzaileak urriaren 9an eta 23an eman zituen lehenengo bi lantegiak, gizarte-ekintzako profesionalei eta gizarte-erakundeen erabiltzaileei zuzenduta. Lehen saioa, inprobisazioaren bidez gorputz-mugimenduak ezagutu, entzun eta ikertzerantz bideratua, eta, bigarrena, lehen saioan landutakoa kontuan hartuta pieza bat elkarrekin sortzerantz bideratua.

Lantegi bakoitzak 2 orduko iraupena izan zuen eta Gipuzkoako Dantzagunearekin elkarlanean egin ziren. Osasun mentalaren arloko 18 pertsonak parte hartu zuten.

Baliabideak:

<https://www.youtube.com/watch?v=itV-aRvYx-k>

<https://www.youtube.com/watch?v=RLCkIW3kVuw>



Artez Hezi lantegia Oihana Varela 2025.11.09

Hodei Iriarte eta Alberto Serrano sortzaileek urteko azken lantegia egin zuten, abenduaren 5ean, gizarte-ekintzako profesionalei eta gizarte-erakundeetako erabiltzaileei zuzenduta. Lantegi honetan proposamen sakon bat planteatzen da: gizakiok etengabe mantentzen dugun barne-elkarrizketa hori eta gure gorputz-adierazkortasuna modu kontzientean elkarlotzea. Saioak 2 orduko iraupena izan zuen eta Gipuzkoako Dantzagunearekin elkarlanean burutu zen. 18 pertsonak hartu zuten parte.

Baliabideak: <https://www.youtube.com/watch?v=sCM1jqh8gkE>



Artez Hezi lantegia Hodei Iriarte eta Alberto Serrano 2025.12.05

Urteko jardunaldia: Gorputzak eszenara. Sormen-prozesuak eskubide kulturaletatik abiatuta

2025eko azaroaren 13an Gertu Kulturaren urteko jardunaldia egin zen **Kursaal Kongresu Jauregian**.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren, la Caixa Fundazioaren eta Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren babesa izan zuen.

Guztira **106 pertsona** bildu ziren jardunaldian, hainbat arlotakoak (kultura, gizartea, arteak eta osasuna, besteak beste) erakunde pribatu eta publikoetakoak, eta tokiko eta estatuko mailakoak.

Jardunaldiaren berri ematea: Jardunaldiaren antolaketarekin batera, komunikazio-kanpaina espezifikoko bat egin zen, hiru une nagusitan: jardunaldiaren aurretik, bere garapenean eta amaieran.

Kanpaina hau Gertu Kulturaren komunikazio-kanaletan egin zen: buletinen bidez, sare sozialetan, komunikabideei prentsa-oharrak bidalita, laburpen-bideo baten bidez eta jardunaldian izan ziren hitzaldien bideoak zabaldua.

- **Komunikazio-kanpaina jardunaldiaren aurretik:**

Kanpainaren hasieran, jardunaldiaren programa hedatzea nabarmendu zen, ekitaldian izena ematea sustatzeko. Ekintzak:

1. **Mailchimp plataformaren bidez izena emateko gonbidapena eta programa bidaltzea** Gertu Kultura sareko pertsona guztiei, bai gizartearen sektorekoei, bai kulturaren sektorekoei, baita oro har programan interesa zutenei ere. Lehen bidalketa oso arrakastatsua izan zen, eta eskuragarri zeuden plazen % 70 inguru bete ziren.
2. Gertu Kulturaren **programa sare sozialetan hedatzea**: Instagram, X, LinkedIn eta Facebooken.



3. Programa hedatzea [Gertu Kulturaren webgunean](#)
4. **Hedabideetan prentsa-ohar bat zabaltzea** jardunaldia iragartzeko eta, horrela, jardunaldiari buruzko itzaropena sortzen lagunduko duen nolabaiteko estaldura mediatikoa lortzeko. Horren ondorioz, El Diario Vasco egunkariak jardunaldiaren hasieraren berri eman zuen, eta Cadena Ser eta Onda Cero irratiak programazioaren zati bat Gertu programari buruz aritzera bideratu zuten.

[Artikulua Diario Vasco 2025.11.13](#)



- **Komunikazio-kanpaina jardunaldian zehar:**

Jardunaldian, saioetako edukiak eta mezuak Twitter eta Instagram bezalako sare sozialen bidez zabaltzea izan zen kanpainaren ardatza. Ondoren, LinkedIn ere erabili zen talde-irudia partekatzeko eta bertaratutakoei eskerrak emateko.

Instagramen eta Xen, hitzaldien argazkiak, mahai bakoitzaren esaldi aipagarria eta horietan parte hartu zuten pertsonak eta jardunaldiaren laburpen-bideo bat zabaltu ziren.

Instagramen % 6 jarraitzaile gehiago izan ziren, aurreko urtean, aldi horretan izandakoen aldean. 3.867 pertsonakoa izan zen irismena, eta Gertu Kulturaren jarraitzaile ez ziren pertsonen % 40ra iristea lortu zen. Irismen hori normalean kontuan izaten dena baino askoz handiagoa da, eta, neurri batean, jardunaldian parte hartu zuten pertsonen konplizitateari zor zaio, sareak zituztelako eta Gertu Kulturak sortutako edukiak eta jardunaldian parte hartu zuten pertsona guztiei bidali zitzaizen talde-argazkia zabaltu zituztelako.

Ekitaldiko talde-argazkia izan zen sareetako edukirik arrakastatsuenak, eta aurreko urtean Gertu Kulturaren urteko jardunaldian laburpen-bideoak izan zuen irismenaren bikoitza lortu zen. Datu hori bereziki positiboa da, ikus-entzunezkoak ez diren edukiak ez baitira inoiz sarituak izan sare horren algoritmoagatik.



Gainera, sare sozialak modu egokia izan ziren programaren edukia fisikoki joaterik izan ez zuten pertsoneri eta Gertu Kultura ezagutzen ez zuten pertsona berriei helarazteko. Hori lortzeko moduetako bat izan zen bertaratutako hizlariak sare sozialetan hedatzea.

Nabarmentzekoa da, gainera, sare sozialetako hedapen horren tonu positiboa, baita programaren gaietatik hurbil zeuden pertsona berriengana iristeko aukera ere.



- **Komunikazio-kanpaina jardunaldiaren ondoren:**

Jardunaldia itxi ondoren, kanpainaren jarraipena egin zen. Alde batetik, ekitaldia sare sozialetan itxi zen, eta publikoaren eta hizlarien bertaratzea eskertu zen, laburpen-bideo batekin.

Gainera, Gertu Kulturaren youtube kanalera ere igo ziren hitzaldien grabazioak. Horiek Gertu Kulturaren programaren itxierako newsletterren bidez hedatu dira eta hedatzen jarraituko da. Bideo guztiek azpтитuluak dituzte parte-hartzaileen jatorrizko hizkuntzan, eta behar bezala berrikusi dira.



Programa:

Jardunaldiaren emaitzazko edukiak eta baliabideak esteka honetan kontsulta daitezke:

<https://www.apropacultura.org/es/jornada-accesibilidad/cuerpos-escena-procesos-creativos-desde-derechos-culturales>



Talde irudia Kursaal Kongresu Jauregian 2025.011.13.





Elkarriketa-mahaia. Begirada zabaltzen dugunean: beste kontakizun, ahots eta praktika batzuk
2025.11.13

Programa espezifikoak eta partaidetzazkoak:

Hizketan programa

Hizketan programak belaunaldien arteko topaguneak eskaintzen ditu, belaunaldi desberdinen hitzak eta kontakizunak entzuteko eta horiei arreta eskaintzeko.

Helburua da adin eta egoera desberdinetako pertsonak subjektu aktibo bihurtzea, premia eta erronka sozial partekatuak identifikatzeko eta gure bizi-kalitatea hobetze aldera eguneroko aukerak aztertze.

Topaketa horietan ikastetxeek, espazio kulturalak eta kalteberatasun-egoeretan dauden pertsonak parte hartzen dute, gizarte-erakundeen eskutik.

2025ean bi topaketa egin dira, lehena **urtarrilaren 10ean** eta bigarrena **urtarrilaren 13an**. Topaketa horietan honako hauek parte hartu dute:

Museum Cemento Rezola, Lasarteko Oriarte Institutuko Batxilergoko 1. mailako ikasleak eta Gurutze Gorriko Nahasmendu Mental Larria - Errehabilitazio Unitateko erabiltzaile eta hezitzaileak.



Topaketaren gaia: nahi ez den bakardadea, bizitzan zeharreko errealitate gisa, nerabezaroari eta gaztaroari zuzendutako begirada espezifikoarekin.

Museoak eta Alzheimerra programa

2024an Museoak eta Alzheimerra programa **pilotua** garatu zen. Proiektu eta ikerlan honek helburutzat du artea eta ondare kulturala Alzheimer gaixotasunaren lehen graduetan dauden pertsonen hurbiltzea, baita haien zaintzaile eta senideei ere.

16 museok hartu zuten parte esperientzia pilotu honetan, eta horren emaitza izan zen eguneko zentroek eta egoitzek testatu eta egindako bisita pilotu batzuk sortzea.

Programak izan zuen arrakastaren ondorioz, sortutako bisitak egonkortu egin dira **2025ean**, Gertu Kultura plataformaren bidez sare osoarentzat eskainiak. Gainera, 2025ean **Museoak eta Alzheimerra programaren bigarren edizioa** jarri da abian, parte hartzaile hauekin:

Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa, D'elikatuz Interpretazio Zentroa, Lenbur Fundazioa, Soinuenea Fundazioa, Makina Erreminta Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa, Txakolin Museoa - Txakolingunea, Bilboko Arte Ederren Museoa, Orduña Hiria Museoa, Euskararen Etxea, Gernikako Bakearen Museoa, Arrantzaleen Museoa.

Bigarren edizio honetako lehen saioa Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoan garatu zen, azaroaren 18an. Hurrengo saioak 2026ko hasieran egingo dira.

Erreferentzia interesgarriak:

- Meet Me. The MOMA Alzheimer's project: https://www.moma.org/visit/accessibility/meetme/practice_sp/
- CCCB. Programa Alzheimer: <https://www.cccb.org/es/el-ccb/programa-alzheimer/231797>
- Dementia in cultural mediation: <https://dementiainculturalmediation.eu/tools/tools-training>



Museoak eta Alzheimerra programaren lehen saioa Elgoibarren 2025.11.18.

Zubiak programa

“Museoa gerturatzen” **adineko pertsonen ongizate kognitiboan eta emozionalean inpaktu positiboa** sortzeko borondatearekin sortu da. Zehazki, helburu ditu demenzia arinaren, mugikortasun urriaren edo espazio kulturaletara lekualdatu ahal izatea zailtzen duen beste egoeraren baten zantzuak izan ditzaketen pertsonak.

Pertsona horiei eragiten dien gai nagusietako bat bakardadea da. Egoitzetan bizi direnen bakardadeaz ari gara, edo beren etxean bizi diren baina eguneko zentroak, Alzheimer-programak edo beste demenzia batzuetarako programak erabiltzen dituztenen bakardadeaz. Programa honek **artearen eta kulturaren onurak** azpimarratzen ditu eta **esperientzia kulturaletan lagun egin eta horiek pertsonalizatu** nahi ditu Gertu Kultura sarean parte hartzen duten museoek eskutik.

Horregatik, proiektu honetan **museoak joaten dira, beren hezitzaileen bidez**, adineko pertsonen egoitzetara lantegiak antolatzen. Kulturarako, aurkikuntzarako, elkarriketarako eta pozteko tarte bat.

2025ean, hainbat esperientzia pilotu egin dira **6 museo** boluntarioren eskutik, eta modu egonkorrean sartu dira programan. Zehazki, **21 esperientzia** kultural egin dira Gipuzkoako hainbat egoitzatan, eta **500 pertsonak** baino gehiagok parte hartu dute jarduera horietan.

Museo parte-hartzaileak: Euskal Itsas Museoa, D'Museoa, Museum Cemento Rezola, Zumalakarregi Museoa, Igartubeiti Baserri Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa.

Egoitza parte-hartzaileak 2025ean: Berio zentro gerontologikoa, Zorroaga Fundazioa, Errenteriako gerontologikoa, Aldakonea, Mizpirualde, Elizaran, Zumarragako eguneko ospitalea, San Ignacio Hermano Garate klinika, Bermingham egoitza-zentroa, Alai Etxe, VillaHerminia.



Zubiak esperientzia-pilotua Zumalakarregi Museoaren eskutik.

Haritik tiraka. Kultur esperientzia lagunkoiak programa

Ingurune kultural inklusiboagoak sortzeko Gertu Kulturaren lan-ildoaren barruan, gizarte-erakundeekin eta eragile kulturekin lankidetzan, **Haritik tiraka. Kultur esperientzia lagunkoiak** programa jarri dugu abian.

Programa honek lan-ildo desberdinak aktibatuko ditu konfiantza eta ongizatea sortuko duten gizarte-harremanetarako espazio egonkorak sortzen laguntzeko, pertsonen arteko loturak sustatu eta espazio kulturetan interakzioak erraztuko dituztenak, artearen eta kulturaren arloko ondareak eskaintzen dituen aukeren bitartez gizarte-aniztasunak bereganatzetik abiatuta.

2025ean zehar honako hauek jarri dira abian:

1. Haritik tiraka. Irisgarritasun kognitiboa lantzen Amarako Garagunerekin, Goyeneche Fundazioa

Hiru **formakuntza-saio** egin dira, **irailaren 9an** (Museum Cemento Rezola), **irailaren 13an** (Euskal Itsas Museoa) eta **irailaren 30ean** (San Telmo Museoa), espazio kulturaletan irisgarritasun kognitiboa hobetzeko.

Saio bakoitzean **21 pertsonak** hartu zuten parte, Amarako Garaguneko erabiltzaileen eta Donostiako hainbat museotako bitartekari kulturalen artean.

Zikloan parte hartzen duten Donostialdeko programatzaile kulturalak: San Telmo Museoa, Chillida Leku, D'Museoa, Euskal Itsas Museoa eta Museum Cemento Rezola.



Formakuntza-saioa Amarako Garagunerekin Euskal Itsas Museoa



Formakuntza-saioa Amarako Garagunerekin San Telmo Museoa

2. Haritik tiraka. Kultur esperientzia lagunkoiak Gautenarekin lankidetzan

Saio edo esperientzia lasaiak espazio kulturaletan sartzten dira gizarte-harremanetan zailtasunak, zentzumen-estimuluekiko sentsibiltate handia eta aurreikusi ezin daitezkeen faktoreekiko gorrotoa duten pertsonen beharretan pentsatzean.

Haienezat, eta haien familia eta lagunentzat, edozein irteera edo jarduera kulturaletan parte hartzeak larritasuna eta antsietatea eragin dezake. Gainera, gainontzeko parte-hartzaileek pertsona hauen jarrera epaitzeko beldurra dago. Gure lurraldean existitzen den behar honi erantzun bat emateko, programa honek espazio kulturaletan testuinguru inklusiboagoak eta irisgarriagoak sortzea proposatzen du, pertsona guztien eskubide kulturalak bermatzen laguntzeko, eta zehazki, autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonen eta haien senideen beharretan arreta jarrita.

Horretarako, Gautenarekin batera, Autismoaren Espektroko Nahasmendua duten pertsonen senideen elkarrearekin batera, elkarriketa- eta formakuntza-ibilbide bat diseinatu dugu, pertsona guztiak barnean hartzetik abiatua, beste ikuspegi eta aukeretatik esperientzia lasaiak garatzeko beharrezkoak diren baldintzetan sakontzeko.

Heziketa ziklo honen lehenengo saioa Cristóbal Balenciaga Museoan izan zen eta **14 pertsona** bertaratu ziren.

Zikloan parte hartu duten programatzaile kulturalak: Cristóbal Balenciaga Museoa, Euskal Itsas Museoa, Igartubeiti Baserri Museoa, Zumalakarregi Museoa, Museum Cemento Rezola, Chillida Leku, San Telmo Museoa, Arma Plaza Fundazioa, Laboratorium Museoa, D'museoa, Gipuzkoako Dantzagunea. 2026an garatuko dira formakuntza-ziklo honetako hurrengo saioak.



Formakuntza-saioa Gautenarekin Cristóbal Balenciaga Museoa.

4. KOLABORAZIOAK

2025ean zehar, Ados Teatroak bultzatutako Oihartzuna-El Eco proiektuan parte hartu du Gertu Kulturak. **Nahi ez den bakardadeari aurre egiteko kultura gailu aktibo gisa** eta tresna nagusi gisa modu egonkor eta jasangarrian bultzatu eta txertatu nahi duen proiektu eszenikoa da.

Proiektuak hainbat lan-ildo ditu, besteak beste, mikrodokumentalak ([Giza Filmoteka](#)) nahi ez den bakardade-egoeran dauden pertsonekin batera sortzea eta nahi ez den bakardadeari eta kultura komunitarioaren zereginari buruzko proiektu-solasaldiak garatzea.

Aurten, Gertu Kulturak 3 proiektu-solasaldi antolatu ditu Gipuzkoako hainbat udalerritan:

- Bergaran, irailaren 30ean
- Zarautzen, urriaren 9an
- Ormaiztegin, urriaren 21ean

2026an solasaldi gehiago egingo dira, hurrengoa Ordizian, otsailaren 3an.

5. LAN-SAREAK

2025ean, Kultur Kabiak, Gertu Kultura bultzatzen duen erakundeak, lankidetzat bat hasi zuen, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen Eskubide Kulturalak Aktibatzekeko Estatuko Sarean parte hartuta.

Beste 5 erakunderekin batera:

Asociación Hazlo Accesible (Madril) sare hau bultzatu eta koordinatzen duen elkarteak, **Kultur Kabia**, **Apropa Cultura** (Katalunia), **Asociación Cultura Inclusiva Balears** (Balear Uharteak), **Asociación Adonar** (Valentziako Erkidegoa) eta BenCuriosa kooperatibaren **Implementa Cultura** (Galizia) programa. Daniel y Nina Carasso Fundazioaren laguntzari esker.

6. FOROETAKO PARTE-HARTZEA

2025ean, programa ezagutzera emateko eta harreman berriak ehuntzeko hainbat aurkezpen egin ditugu, eta honako hauetan parte hartu dugu:

- Hitzetatik Ekintzetara topaketak, otsailaren 6, 13, 20 eta 27an.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gizarte inklusioa babesten komunitatean eta komunitatetik" EHUren udako ikastaroa, irailaren 3an, Miramar Jauregian, Donostian.
- *"Gorputzak eszenara. Sormen-prozesuak eskubide kulturaletatik abiatuta"* jardunaldiaren antolaketa, azaroaren 13an, Kursaal Kongresu Jauregian.
- Proiektua aurkezteko topaketa eta bilera espezifikoak, hauekin: Plus55, Atzegi, Ortzadar Elkartea, Arazi, Begisare, Sarea, Udalak (Zarautz, Arrasate, Donostia, Zumaia, Soraluze, etab.), Donostia Kultura, Barandiaran Fundazioa, Soinuenea, Dantzagunea, Arazi, Uliazpi, San Ignacio Garate Klinika, Sanitas, Irse Ebi, Zereginen Ikaskuntzako Gelak Gipuzkoa (Eibar, Bergara, Irun, Oñati, etab.), Zabaltzen sartu, EAPN, etab.
- Praktika-komunitatea. Dibulgazioa zientzian. Eusko Jaurlaritza, 2025eko abendua.

7. KOMUNIKAZIOA ETA PRENTSA

Laburpena

2025ean zehar, Gertu Kulturaren komunikazioak **hiru ardatz estrategiko** izan zituen:

- Gertu Kultura sarea ezagutzera ematea.
- Gertu Kultura eta “Filtrorik gabe” kanpaina posizionatzea eta “Kultura sentitu. Hautatu gabeko bakardadearen aurka” ikusarazten jarraitzea.
- Hainbat programatan, formakuntza-ildotan eta urteko jardunaldian gauzatutako urteko ibilbide-orria hedatzea.

2025ean zehar, Gertu Kulturaren komunikazio-estrategia bere programen eta formakuntza-ildoen aniztasuna ezagutzera ematen oinarritu zen batez ere. Horrela, komunikazioa programazio kulturala zabaltzetik harago joan zen, gizartearen eta kulturaren sektoreak elkartzeko eta prestatzeko sarea funtsezko gunea dela azpimarratzea helburu.

Eduki guztiak ele bitan sortu ziren, euskararen erabilera lehenetsita eta beti hizkuntza inklusibo baten erabilera bermatuta.

Ikuspegi estrategiko horiek funtsezkoak izan ziren proiektuaren komunikazioaren hasieran ezarritako helburuak lortzeko.

- Proiektua kontakizun moduan ezagutaraztea. Gertu Kultura zergatik den beharrezkoa erakustea, gaur egun kulturarako sarbidean dauden oztopoak eraisteko.
- Gizarte-erakundeetako pertsonen ekimenarekin bat egiteko eskatzea.
- Programatzaile kulturalen egitea Gertu Kultura sareko kide izan daitezen.

Edukiak

Hedatutako edukiek gai hauek bildu zituzten:

- Gertu Kulturaren **urteko ibilbide-orria** eta posizionamendua sarearen existentziaren beharrekiko.
- Gertu Kultura osatzen duten **programatzaileak**.
- **Gertu Kulturak bultzatutako ekimenak**, besteak beste, Artez Hezi, Haritik

- tiraka, Museoak eta Alzheimerra, Zubiak eta urteko jardunaldia.
- Gertu Kulturarekin bat datozen gaiak lantzen diharduten erakundeekiko lankidetzak ikusaraztea.

Buletinak

Posta elektronikoak Gertu Kulturaren komunikazio-bide nagusietako bat izaten jarraitu du, batez ere gizarte-erakundeak jardueretan parte hartzera animatzeko. Gainera, informazio-iturria da kulturaren sektorearentzat Gertu Kulturak gauzatzen dituen programetan, eta programaren posizionamendua sendotzeko modu bat da.

2025ean 54 buletin bidali ziren Gertu Kulturatik, hau da, 2.641 mezu elektroniko. Mezu elektroniko horiek bi publiko nagusi izan dituzte: batetik, Gertu Kultura sareko gizarte-erakundeak, eta, bestetik, Gertu Kultura sareko programatzaile kulturalak eta proiektuan interesa duten pertsona guztiak biltzen dituen sektore kulturala.

Buletin horiek sortzen duten interes-maila oso handia da, eta newsletterren errendimendu estandarren oso gainetik dago; Europako irekiera-tasen estandarra % 22koa da, eta Gertu Kulturaren bidalketetan batez bestekoa % 31koa da.

2025ean gizarte-erakundeei zuzendutako buletina finkatu eta indartu da. Bidalketen estrategia aldatu egin da, eta eskualdekako segmentazioaren ordeztu buletin laburragoak eta maiztasun handiagokoak izan dira bidalitakoak (2 astean behin buletin bat).

Gainera, proiektuaren parte diren gizarte-erakundeak etengabe hazten ari direnez, gizarte-erakunde berri batek proiektuarekin bat egiten duenean, gizarte-erakundeei zuzendutako buletina bidaltzen zaio, bere lehentasuneko hizkuntzan.

Eraitza gisa, Gertu Kulturaren jardueretara bisitak sustatzea lortu da posta elektronikoaren bidez, eta datu-baseak handitu dira.

Bestalde, buletina bidaltzen jarraitu da, pertsonak Gertu Kultura eta hura osatzen duten proiektuak ezagutu ditzaten. Gertu Kulturak lantzen dituen gaien inguruan baliozko edukia emateko eta abian dituen kanpainak ezagutarazteko buletina da.

Gizarte-erakundeei zuzendutako mezu elektronikoa:

gertu
kultura

Irakurmenaren araz

Gozatu ezazu Gertu Kultura plataformaren bidez mota guztietako kultura-jarduerez, antzerki emanaldietatik aire zabaleko bisita gidatueta. Hona hemen datozen egunetarako gure proposamenetako batzuk.

Dantza eta zinema maite dutenentzat:



Martha Graham Dance Company-
ren dantza emanaldia
[Kursaal](#)
Asteartea, martxoak 27
19:30
[Erreserbatu hemen zure plaza](#)



Arratsaldeko saioak SADE
zinemekin
[Principe zinetak](#)
Astelehenetik ostiralera
16:30etatik 17:30etara
[Erreserbatu hemen zure plaza](#)

Gauza berriak ezagutzeko eta bisita kulturaletan aktiboki parte-hartzeko gogoia dutenentzat:

Mezu elektroniko orokorra:

Gertu Kultura Kolaborazioak:



- Irailaren 3an Donostiako Miramar Jauregian egon ginen **“Gizarte inklusioa babesten komunitatean eta komunitateik” EHUren udako ikastaroan** “Gizarteratzeko elkarriketak Gipuzkoan” mahai-inguruan. [Jarraitu irakurtzen esteka honetan](#)
- **“Kultura eta gizarteratzea, eztabaidagai”. Kulturari eta inklusioari buruzko hitzaldia Lugaritzeko Kultur Etxean, Plus 55ek gonbidatuta.**
Urriaren 14an Lugaritzen egongo gara kulturak gizarteratzeko tresna gisa duen zereginari buruz hausnartzeko.
- 2025ean, Gertu Kulturak Oihartzuna - El Eco proiektuarekin kolaboratu du arte eszenikoen eta kultura-bitartekaritzaren bidez nahi ez den bakardadeari aurre egiten laguntzeko. Irailetik abendura Gipuzkoako udalerri desberdinetan egongo gara, komunitate-testuinguru desberdinetan solasaldiak antolatzen. [Ezagutu proiektua esteka honetan.](#)

Gomendatutako irakurketak



Kultura Eskubideen Plana.

Laburpen honek Kultur Eskubideen Planaren ikuspegi orokorra eskaintzen du, politika publiko kulturaletarako ikuspegi berri baten aldeko apustu sendoa, demokrazia kulturala zabaltzearekin eta kulturak gure garaiko erronka garrantzitsueni aurre egiteko duen potentzial eraldatzailearekin konprometitua.

Sare Sozialak

Jarraian, Gertu Kulturaren profilen emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu Instagram eta X (lehen, Twitter) sare sozialetan. Sare sozialetan partekatutako eduki guztiak elebidunak izan dira, euskararen erabilerari lehentasuna emanez eta hizkuntza inklusiboa erabiliz. Ahal izan denean, Instagram bezalako sareetan erakundeekin partekatutako argitalpenak egin dira, eta horrela oihartzun handiagoa izan du edukiak.

Sare sozialetako jarduera sendotuz joan da urtean zehar, eta jarduera etengabea izan da, une bakoitzean partekatu den edukiak markatutakoa. Horregatik, ikusten dugu intentsitate handieneko uneak apirilean izan zirela, Aspacerekin egindako formakuntzarekin, uztailean egindako Elkargunearekin, Gertu Kultura jardunaldiarekin eta Dantzagunearekin elkarlanean Artez Hezi programan parte hartu duten artistei egindako elkarriketekin.

Sare sozialetako estrategiaren helburuak bat etorri dira programaren komunikazio-planarekin beraren helburuekin:

1. Egungo programatzaile kulturalen sarea eta eskaintzen diren espazio eta ekitaldi kulturalen aniztasuna erakustea, bai lurralde-mailan, bai diziplina artistikoaren arabera.
2. Azpimarratzekoa da Gertu Kulturak pertsona guztiek kultura eskuragarri izan dezaten hartua duen konpromisoa.
3. Kolaboratzaileen konpromiso soziala eta kulturala nabarmentzea.
4. Esparru sozialaren eta kulturalaren arteko elkarriketa sustatzea.
5. Gertu Kulturak bultzatzen dituen programak erakustea (Museoak eta Alzheimerra, Haritik tiraka, Errazbide...)
6. Artez Hezi programan parte hartzen duten artistei ahotsa ematea.


Instagram



Gertu Kulturak % 67 baino gehiago handitu ditu jarraitzaileak iazko aldi berarekin alderatuta, eta horrek erakusten du webgune honek erabiltzaileengan pizten duen interes-maila eta programak gizarte-sare honetan duen hazkunde potentziala.

Guztira 43 argitalpen egin dira 2025ean, eta guztira 23.650 bistaratze izan dira; horiekin 9.000 kontu lortu dira.

Beste erakunde edo kolaboratzaile batzuekin egindako argitalpenak eta ekitaldiei (urteko jardunaldia, adibidez) lotutakoak dira irismen handiena duten edukiak, eta, ondoren, programa espezifikoaren argitalpenak. Era berean, lortutako irismena kontuan hartuta, edukirik onena izan da Laboratoriumekin lankidetzan argitaratutako reela, bere egoitzan egindako Elkarguneari eta urteko jardunaldiarekin lotutako edukiei buruzkoa (programa eta parte-hartzaileen talde-argazkia).



X




X sarean, gaur egun, 94 jarraitzaile daude, eta iaz, berriz, 64. Sare sozial honetan Instagramen joera bera mantendu da, eta eduki ezagunena Kursaaen egindako urteko jardunaldiarekin lotutako guztia izan da. Horren arrazoia da, jardunaldia etengabe transmititu zen egun horietan, argitalpen-kopurua handiagoa izan zela sare sozial honetan, baita jardunaldian parte hartu zuten eta Gertu Kulturarekin konektatu ziren erakundeena ere, sare sozial honen bidez; ekitaldiak garatzen diren bitartean sare hau erabiltzeko joera handia erakusten du horrek. Gainera, Gertu Kulturako espazioetan jarduerak argitaratu dituzten programatzaile kultural batzuen lana nabarmendu behar da.



Linkedin

Indicadores



2025ean zehar Gertu Kulturak bere jarduerarekin jarraitu du Linkedinen, eta sendotu egin du Gertu Kulturak interakzio gehien lortzen dituen bigarren sare sozial gisa, nahiz eta 104 jarraitzaile-kopuru apalean mantentzen den. Horren arrazoia da, neurri batean, ez dela ohikoa gizarte- eta kultura-erakundeek sare sozial honetan presentzia izatea.

Gertu Kulturak sare sozial honetan zabaltzen dituen edukiek Gertu Kulturaren programa espezifikoaren hedapena dute ardatz, baita formakuntza ere, eremu profesionaleko sare honetan zabaltzen diren edukiekin bat etorritik.

Gertu Kulturak beste sare sozial batzuetan duen joeraren antzekoa da sare sozial honetan duena. Arrakasta handiena izan duten edukiak X eta Instagrameko berberak izan dira: Gertu Kulturaren urteko jardunaldiari buruzko informazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako UPV-EHUko uda ikastaroetan Gertu Kulturak izandako parte-hartzea.


Ayer pudimos conocer experiencias comunitarias del sector social, escuchamos sus inquietudes y nos enriquecemos de nuevas iniciativas que surgen en y desde la comunidad para avanzar hacia la creación de sociedades más inclusivas en el Curso de Verano de la Universidad del País Vasco "Apoyo a la inclusión social en y desde la comunidad", organizado por el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Marta Font, Directora de Gertu Kultura y Amaia Salaverria, responsable de Mediación en Gipuzkoa del programa compartieron algunas experiencias sobre cómo Gertu Kultura va activando recursos culturales de proximidad en las comarcas de forma accesible con el objetivo de normalizar la vida cultural de todas las personas. Además, tuvimos ocasión de compartir algunos proyectos específicos en los que estamos trabajando que tienen que ver con líneas de investigación del programa.


Gracias a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a Iker Usón González por la invitación y a nuestros compañeros de mesa Miguel Salgado (Zabalduz Kooperatiba Elkartea) y Jose Barreiro (Emaús Gizarte Fundazioa) por estos necesarios diálogos.

Descubre más detalles de nuestra intervención en nuestro blog: <https://lnkd.in/eJW6uT-6>

#GertuKultura #InklusiorakoAtea #kultura #inklusioko #inclusion #culturaaccesible #culturainclusiva #accesibilidad



Bideoak eta youtube



2025ean, Gertu Kulturaren YouTubeko kanala nabarmen indartu da. Alde batetik, Dantzagunearen "Artez Hezi" lantegietan parte hartu zuten artistekin bideo-elkarrizketak sortu ziren. Bestalde, Gertu Kulturaren urteko jardunaldian sortutako edukiak txertatu ziren.

Artisten bideoek irismen mugatua izan zuten YouTubean, haien hedapen eta bistaratze nagusia Instagramen kontzentratu baitzen. Hala ere, jardunaldiaren bistaratzeek goranzko joera erakusten dute, eta bere hedapenarekin jarraitzeko asmoa dago.

Hedabideak

Gertu Kulturak hedabideetan duen jarraipenaren joera gainerako komunikazio-kanaleetan ikusten denaren antzekoa da. Gertu Kulturak hedabideetan izan duen mugarri nagusia urteko jardunaldia azaroan garatu izana da, programaren bigarren urteurrena eta ibilbide honetako bere balantzea ikusarazteko une egokia.

Jardunaldia zela eta, lehen aipatu bezala, prentsa-ohar bat idatzi zen. Bertan, jardunaldiaren programaz gain, 2025ean Gertu Kulturak izandako lorpenak ere jasotzen ziren: Gertu Kulturen egindako jarduerak, parte hartu duten pertsonen kopurua, programan parte hartzen duten gizarte- eta kultura-erakundeen kopurua, egin diren formakuntza eta proiektu espezifikoak...

Ahalegin hori lehenago aipatutako estaldura mediatikoan gauzatu da, hedabide hauetan: Cadena Ser, Diario Vasco eta Onda Cero. Gainera, aipatzekoa da Bergaran Laboratorium Museoa egin zen Elkarguneak nolabaiteko garrantzia lortu zuela hedabideetan, sarean parte den museo honen konplizitateari esker. Beste behin ere, nabarmendu egiten da sustatzaile eta programatzaile kulturelekin lankidetzan aritzea ezinbestekoa dela programa ezagutzera emateko.

Laboratorium acogió 'Cultura sin estigmas', una apuesta para romper barreras

Una treintena de programadores acudió al foro con Gertu Kultura que promueve cultura ante la exclusión social y las discapacidades

Juan Antonio Migura
bergara.
Martes, 1 de julio 2025, 20:47

Comenta

Guardar

Compartir

Agentes culturales como programadores institucionales y particulares tomaron parte este viernes en la jornada Cultura sin estigmas que impulsa Gertu Kultura, un movimiento de programación y difusión que parte de la afirmación de que «la cultura es un derecho, dignifica la persona y normaliza su inclusión plena a la sociedad» y que dedican su actividad a «ofrecer espectáculos y actividades culturales para personas en riesgo de exclusión social o con discapacidad».

El encuentro entre sector social y cultural tuvo lugar en Laboratorium, en concreto en el nuevo espacio creado en las antiguas caballerizas, y buscó dar respuestas a necesidades sociales a través de la cultura.

Webguneko bisitak

Gertu Kulturaren webgunean, komunitatearentzat interesgarriak diren berriak eta edukiak zabaltzeko baliatu da maiz elikatu den bloga. Plataforma ona izan da Gertu Kulturaren kolaborazioak edo proiektu espezifikoak zabaltzeko, tartean Museoak eta Alzheimerra programa.

